

Euskal Sagardoarena produkzio osoaren %40 inguru da jada



Gipuzkoako 41 sagardotegik egiten dute Euskal Sagardoa / usoz

Sagardogileek ohartarazi dute aurtengo uzta nahiko aurreratuta datorrela, iaz bezala, eta ondorioz, irailean hasiko direla sagardoa egiten zenbait upategitan

Lunes, 3 septiembre 2018, 12:05



Orain eskuragarri dagoena Euskal Sagardoa labela duen bigarren uzta da, 2017ko uztari dagokion sagardoarena hain zuzen. Lehen uztan, 2016 ekoiztu eta 17an kontsumitutakoan, 35 sagardotegi eta 200 sagardogile zeuden Jatorri Deituran eta miloi bat eta erdi sagardo ekoiztu zuten. Oraingoan berriz, 48 sagardotegi (41 Gipuzkoan, 5 Bizkaian eta 2 Araban) eta 270 sagargile dira Jatorri Deituradunak. Guztira, 4 miloi litro sagardo egin dituzte, produkzio osoaren %40 inguru.

Aurtengo uzta aurrekoa baino txikiagoa dator kopuruan, beraz, nahiz eta 2017koa ohikoa baino askoz ere handiagoa izan zen. Sagardogileek ohartarazi dute, gainera, aurtengoa nahiko aurreratuta datorrela, iaz

bezala, eta ondorioz, irailean hasiko direla sagardoa egiten zenbait upategitan.

Sagardotegien %70 dira Jatorri Deiturako baitakoak, eta Jaurlearitzak 2030erako guztia bertako sagar hutsez egiteko konpromisoa du. Azaldu dute, ere bai, sagardoaren ekoizpen gehiengoa Euskadin kontsumitzen dela. Produkzioaren %3a baino ez da saltzen Euskaditik kanpo.

«Pozteko moduko» datuak

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak urtero Donostian ospatzen duen Sagardo Egunean aurten 37 upeltegik hartu dute parte. Festa erakusleihu gisa baliatzen dute produktua dastatu eta ezagutarazteko. Atzoko ediziora, Eusko Jaurlearitzaren izenean Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburua eta Bittor Oroz Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea batu dira.

Sagardogileak sektorea profesionalizatu eta kalitatea hobetzeko urrats sendoak ematen ari dira, eta bide horretan azken urteetako proiektu esanguratsuena Euskal Sagardoaren Jatorri Izendapenaren sorrera izan da.

Donostiako Konstituzio plazan, Arantxa Tapia, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburuak Euskal Sagardoaren bizitza laburraren balantzea egin zuen. Bi urte daramatza proiektuak martxan eta geroz eta sagardotegi eta sagargile gehiago ari dira batzen proiektura, eta ondorioz, jatorri izendapeneko sagardo kopurua ere gora ari da egiten. Tapiak esan duenez, datuok «pozteko modukoak eta sektorea zoriontzeko modukoak» dira.

TEMAS Euskera



La mejor selección de noticias en tu mail

Recibe las principales noticias, análisis e historias apuntándote a nuestras newsletters

Apúntate

Lo + leído

El Diario Vasco

Gipuzkoa

[Top](#)

[50](#)

1 Operación policial contra la trata de personas con fines de explotación sexual en Donostia

2 La Diputación de Gipuzkoa pide a Francia que «tome medidas» en la frontera

3 Una escuela de moda para Donostia de inspiración italiana

4 El acusado de acuchillar a un joven en Arrasate niega los hechos y dice que estaba en Vitoria


5 Los piquetes de la huelga en Francia volvieron a colapsar la AP-8 en Irun

 **Comentarios** 


Patrocinada

Noticias relacionadas


Irakur-festa handia Beasainen larunbat honetan



'Ni, hi, hura..., ikastola mundura!'




«Aitortza osoa» Ahotsak.eus-eko lantaldeari



Fotos



📍 Avanzan las obras de reconstrucción del puente que une Deba y Mutriku



📍 Gipuzkoa responde a la llamada del Banco de Alimentos



📍 Los 'chalecos amarillos' toman Biriatou



Rotura de catenaria

Vídeos



Poza, ikusteko eta entzuteko bertsoak



21. Korrikaren abestia eta bideklipa



Objetivo: Un kilo de comida por cada guipuzcoano



Irene Rosales y Kiko desmienten que se vayan a América a vivir

EL DIARIO VASCO

© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.
Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018



vocento

